

2006ko maiatzaren 2an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO MARTXOAREN 28KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.-2.005EKO KONTU OROKORRA JENDEAURREAN JARTZEKO ERABAKIA HARTZEA.
- 5.-ADUNAKO H.I.B 1.5-6 UNITATEAN ERAIKI BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZAK ESKURATZEKO AUKERAKETA PROZESUAN PARTE HARTUKO DUTEN PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 6.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 7.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 8.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko apirilak 27.

ALKATEA.

2.006KO MAIATZAK 2.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Antton Artola Ibareguren.

Patxi Ormaetxea Otegi.

Miren Aburuza Alkorta.

Bertaratu gabeak:

Javier Zabala Zabala.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletzeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko maiatzaren biko hogeita bat ordu eta hamabost minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO MARTXOAREN 28KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko martxoaren 28ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Mari Camen López Gázquez Andereari Adunako Gaintza Bekoa etxebizitzaren habitabilitate baimena ematea (58/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- Sara López Gázquez Andereari Adunako Gaintza Bekoa etxebizitzaren habitabilitate baimena ematea (59/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Ion Iturrioz Lekuonarena den SS-0814-AY ibilgailuaren erreziboa anulatzea, kantitatea padroitik jeixtea eta padroian baja ematea (60/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Jose Maria Zabala Zubiarrain Jaunaren izenean dagoen 4620-CKK matrikuladun ibilgailuaren minusbaliotasun exentzioa onartzea (61/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Jose Mari Arruti Iturrioz Jaunaren izenean dagoen SS-8828-BG matrikuladun ibilgailuaren minusbaliotasun exentzioa onartzea (62/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Jose Maria Zabala Zubiarrain Jaunaren izenean dagoen 4620-CKK ibilgailuaren erreziboa anulatzea eta dagokion kantitatea padroitik jeixtea (63/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- Jose Mari Arruti Iturrioz Jaunaren izenean dagoen SS-8828-BG ibilgailuaren erreziboa anulatzea eta dagokion kantitatea padroitik jeixtea (64/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Iñaki Gorostidi Astigarraga Jaunari Adunako Apakintza baserriko txabolari egindako eranskinak botatzeko epea jakineraziaz (65/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- Maria Jose Baltasar Alberro Andereari Lardi auzoan egindako familia bakarreko etxebizitzaren habitabilitate baimena ez ematea (66/2006 Alkatetza ebazpena).

10.- 1.5-6 unitateko etxebizitzetako eraikinaren elementuen multzoak onartzea (67/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Roberto Prin Jaunari Fischer Zirkuaren ordezkartzan zirkoa jartzeko baimena ematea (68/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Lizarrekak aurkezturiko “Proyecto de restitución de la capacidad de tratamiento del proceso de inertización-estabilización de la planta de Lizarreka, S.L” –en inguruan idatzia jakineraziaz (69/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- Xabier Aramburu Irazu Jaunari Construcciones Lantegui, S.L.-ren izenean kontrolik gabeko isurketen inguruko espediente santzionatzailearen inguruan idatzia jakineraztea (70/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Mari Jose Baltasar Alberro Andereari partzelaren itxitura egiteko baimena ematea (71/2006 Alkatetza Ebazpena).

15.- Jose Antonio Agirre Arregi Jaunari bere lursailean egindako txabolari egindako eranskinen inguruko idatzia jakineraziaz (72/2006 Alkatetza Ebazpena).

16.- Enplegua sustatzeko programaren barruan, 2 langile hartzeko dirulaguntza eskaera egitea (73/2006 Alkatetza Ebazpena).

17.- Juana Josefa Aburuza Eizmendi Andereari bere jabetzakoak diren terrenoen segregazio baimena ez ematea (74/2006 Alkatetza Ebazpena).

18.- Milagros Urkola Andereari Lardi Berri etxebizitzan egindako obren inguruko idatzia jakineraztea (75/2006 Alkatetza Ebazpena).

19.- Bake Epaile titular eta ordezkoa aukeratzeko espedienteari hasera ematea (76/2006 Alkatetza Ebazpena).

20.- Leandro Galatas Bengoetxea Jaunari bere terrenoetan kokatuta dauden karabana eta etxola kentzeari buruz idatzia jakineraztea (77/2006 Alkatetza Ebazpena).

21.- Martin Esnaola Aguiirezabala Jaunari portxe bat egiteko aurkezturiko hirigintz kontsultari erantzuna ematea (78/2006 Alkatetza Ebazpena).

22.- Aragi Bulegoak, S.L.-k aurkezturiko Arau Subsidiarioetako H.I.B. 3.1-eko Jabe Bakarreko Konpentsazio Proiektuari behin betiko onarpena ematea (79/2006 Alkatetza Ebazpena).

23.- Aragi Bulegoak, S.L.-k aurkezturiko Arau Subsidiarioetako H.I.B, 3.1-eko urbanizazio proiektuari haserako onarpena ez ematea (80/2006 Alkatetza Ebazpena).

24.- Migel Arrospide Jaunari baimenik gabe egindako obrak eraisteko epea jakineraztea (81/2006 Alkatetza Ebazpena).

25.- Antton Artola Jaunari Haizea etxeko teilatua konpontzeko baimena ematea (82/2006 Alkatetza Ebazpena).

26.- Milagros Arregi Urkola Andereari Lardi Berri etxeko leihoetan berrikuntzak egiteko baimena ematea (83/2006 Alkatetza Ebazpena).

27.- Jon Ander Elduayen Jaunari Ekialde etxebizitzarako Adunako ur saretik ura enpalmatzeko baimena ematea (84/2006 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA
URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.**

Ez dago eskaerarik.

**LAUGARREN PUNTUA:
2.005EKO KONTU OROKORRA JENDEAURREAN JARTZEKO ERABAKIA
HARTZEA.**

Udalbatzak, aho batez, aldeko txostena eman dio 2005eko Kontu Orokorrari, eta Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 legearen 63.2 artikuluan ezarritakoa betez, jendaurrean jartzen da, hamabost egunez, Idazkaritza-Kontuhartzaitzako bulegoetan. Epe horretan erreklamazioak edo oharrak aurkez ditzakete interesatuek, Adunako Udaletxeko sarrera Erregistro Orokorrean bulego orduetan aurkeztu behar izango direlarik.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ADUNAKO H.I.B 1.5-6 UNITATEAN ERAIKI BEHAR DITUZTEN
ETXEBIZITZAK ESKURATZEKO AUKERAKETA PROZESUAN PARTE
HARTUKO DUTEN PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEA,
BIDEZKOA BADA.**

Udaletxe honek H.I.B 1.5-6.partzelan egin behar dituen etxebizitzak eskuratzeko aukeraketa prozesuan parte hartuko duten eskaerak aztertu ondoren, Udaletxe honetako

Iragarki Taulan onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda jarri zen, zerrenda hau Iragarki Taulan jartzen zenetik interesatuei 10 eguneko epea ematen zitzaielarik alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epea amaitu eta alegaziorik ez denez aurkeztu, Adunako Udalak, 2.006ko maiatzaren 2an egindako Bilkuran, ondoren aipatzen den behin-betiko zerrenda onartu zuen.

BEHIN BETIKO ZERRENDA.

A). 2.001eko urtarrilaren 1a baino lehen Adunan erroldatuta egonik, gutxienez 10 urte jarraian erroldatuak egon direnak.

ONARTUAK:

- 1.- Idoia Amenabar Zabala.
- 2.- Iosu Aburuza Belamendia.
- 3.- Jokin Aburuza Belamendia.
- 4.- Josu Carrillo Bengoetxea.
- 5.- Asier Carrillo Bengoetxea.
- 6.- Modesto Zabala Bengoetxea.
- 7.- Luis Mari Zabala Bengoetxea.
- 8.- Asier Iraola San Sebastian.
- 9.- Xabier Zabala Tolosa.
- 10.- Ibon Elduaien Intxausti.
- 11.- Ainitze Aburuza San Sebastian.
- 12.- Ainhoa Elduaien Intxausti.

13.- Luis Mari Ormaetxea Otegi-Naiara Otaño Loinaz.

14.- Ioseba Mattin Aburuza Goikoetxea.

15.- Nerea Aburuza San Sebastian.

B). 2.005eko urtarrilaren 1a baino lehenago Adunan erroldatuta egon diren gainerako guztiak.

ONARTUAK:

1.- Jon Madinabeitia Garcia.

2.- Joseba Usandizaga Eceiza.

C). Andoainen edo Tolosaldean erroldatutakoak.

ONARTUAK:

1.- Eider Imaz Arrate-Harkaitz Aramburu Goicoechea.

2.- Jonathan Hinchado Gomez- Nerea Bellido Sanchez.

3.- Xabier Blanch Lizarza.

4.- Mainer Eizmendi Iraola.

5.- Aitziber Trabazos Colmenero.

6.- David Femia Fuentes.

7.- Unai Zubeldia Larrañaga- Francisco Javier Valbuena Alvarez.

8.- David Bengoetxea Garmendia.

9.- Iñosken Mujka Tolaretxipi.

- 10.-Antonio Ramudo Chao.
- 11.-Iban Guerrero Jauregi.
- 12.- Leire Sarasola Lizaso.
- 13.- Olatz Hernandez Zinkunegi.
- 14.- Urtzi Azpiroz Usandizaga.
- 15.- Ander Ansa Irazusta.
- 16.- Unai Agirrezabal Iturbe.
- 17.- Aitor Urkola Amundarain.
- 18.- Xuban Pikabea Carrera.
- 19.- Asier Mendizabal Arizmendi.
- 20.- Maria Teresa Paz Precedo.
- 21.- Maria Aranzazu Sarasibar Sosa- Jose Antonio Ballesteros Alcalde.
- 22.- Begoña Sarasibar Sosa.
- 23.- Miren Nekane Marzol Ormazabal.
- 24.- Lorea Izaguirre Elortondo.
- 25.- Raquel Del Moral Ortiz.
- 26.- Jesus Antonio Bernabe Bengoetxea.
- 27.- Nahikari Arana Arteaga.
- 28.- Eider Mujika Irazusta.
- 29.- Sonia Martin Paz.

- 30.- Aloña Chapartegui Elola.
- 31.- Ikerne Santa Cruz Mendizabal.
- 32.- Arantza Aizpurua Altuna.
- 33.- Ekain Yarza Errasti.
- 34.- Alfonso Moreno Bermudez.
- 35.- Unai Lopetegui Cabanillas.
- 36.- Jose Antonio Collantes Etxeberria.
- 37.- Iosu Lizarraga Gabirondo.
- 38.- Amaia Caballero Iñurrita.
- 39.- Sergio Rebollo Tomé.
- 40.- Aitor Arteaga Arruti.
- 41.- Ane Gibelalde Gonzalez.
- 42.- Larraitz Otaño Loinaz.
- 43.- Ion Albisua Goikoetxea.
- 44.- Iker Matute Arroyo.
- 45.- Oihana Aramburu Ayerbe.
- 46.- Aitor Beobide Mujika.
- 47.- Maria Del Rosario Jimenez Santa Cruz- Aitor Encinas Gaitero.
- 48.- Xabier Mayoz Larrarte.
- 49.- Goretti Salaberria Kortajarena.

- 50.- Aitor Aizpurua Altuna.
- 51.- Francisco Jabier Aizpurua Altuna.
- 52.- Eduardo Sarnago Ruiz.
- 53.- Ricardo Santano Parra.
- 54.- Aitor Gonzalez Galarraga.
- 55.- Naroa Geresta Arruti.
- 56.- Alejandro Irazu Eizaguirre.
- 57.- Andoni Alvarez Lete.
- 58.- Ander Lopez Vazquez.
- 59.- Estibaliz Cipitria Iradi.
- 60.- Izaro Larrauri Aldaz.
- 61.- Izaskun Arrue Etxeberria.
- 62.- Maider Gorostidi Carrera.
- 63.- Felix Andueza Uriya.

D). Beste edozein pertsona fisikok.

ONARTUAK:

- 1.-Maria Teresa Valbuena Sanchez.
- 2.- Uxue Laburu Izagirre.
- 3.- Markus Kilian.

4.- Oihana Ezeiza Zabala.

5.- Maria Rocio Arias Garcia.

Baldintza Pleguko zortzigarren puntuan aipatzen denaren arabera, etxebizitza eta haien eranskinen zozketa Notarioaren aurrean maiatzaren 10ean arratsaldeko 19:00-retan Udaletxearen azpian kokaturik dagoen Kultur Aretoan izango da.

**SEIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Araba Euskaraz 06 taldeak 2.006ko ekainaren 18an Araban ospatuko den Araba Euskaraz festarako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez dirulaguntzarik ez ematea erabaki du.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Gai zerrendatik kanpo, honako gai hau erabaki da:

1.- Gipuzkoako Urak, S.A-k 2.006 urteko azpiegitura finantzaketako kanon bezela aurkezturiko 5.797,96 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

2.- Alkateak informatzen du Refractarios Kelsen, S.A-rekin hitzarmen bat adostekotan dela. Hitzarmen honek nahiz eta detaile gehiago jaso, bere edukin nagusiaren arabera, Refractarios Kelsen, S.A enpresak dituen beharrak kontuan izanik, Adunako Udala tramitatzen ari den Arau Subsidiarioen berrikuspenean Refractarios Kelsen, S.A. kokaturik dagoen eremuaren inguruko lurak kalifikatzea eta bertako hirigintz baldintzak adosten dira.

Baita ere aprobetxamendu berriei dagokien %10-a, hau da, 56.973 €-takoa dela eta kantitate hau Errepartzelazio Proiektua onartzearekin batera Refractarios Kelsen, S.A-k Adunako Udalari ordaindu behar diola adosten da.

Honetaz gain eta gaur egun Udalarena den berdegune bat, ordenazio berriaren arabera, Kelsen, S.A. enpresarena izatera pasako denez, beste 90.000 € ordaindu beharko dizkio Udalarari Arau Subsidiario berriak behin betiko onartzen direnean.

Hitzarmena bere osotasunean aztertu ondoren, aho batez zera erabaki da:

1.- Hitzarmena onartzea.

2.- Bai kontratua eta bai eskriturak sinatzeko boterea Alkateari ematea.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta hamabost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.